

XXVI. NAZIOARTEKO ARGAZKI MOSTRA

XXVI MUESTRA INTERNACIONAL DE FOTOGRAFÍA

XXVI. NAZIOARTEKO ARGAZKI MOSTRA

XXVI MUESTRA INTERNACIONAL DE FOTOGRAFÍA

Zarautz
2018

Zarauzko Argazkizale Elkarteak 1993. urtetik hona antolatu du Nazioarteko Argazki Mostra etenik gabe. Urte hauetan guztietan ospe handiko eta argazkigintzan ibilbide oparoa izan duten artistak egon dira gure artean.

Honako argazkilari hauen lana aurkezten dugu oraingoan:

- Gema Arrugaeta (Gipuzkoa)
- Antton López Garín (Gipuzkoa)
- Antonio Manzano (Cantabria)
- Danny Yen Sin Wong (Malasia)

Denon gustukoa izatea espero dugu.

Zarauzko Argazkizale Elkarteak

La Sociedad Fotográfica de Zarautz organiza esta Mostra Internacional desde el año 1993 ininterrumpidamente. Durante estos años hemos tenido entre nosotros a artistas de reconocido prestigio y con trayectorias notables en el campo de la fotografía.

En la edición actual contamos con la obra de los siguientes fotógrafos:

- Gema Arrugaeta (Gipuzkoa)
- Antton López Garín (Gipuzkoa)
- Antonio Manzano (Cantabria)
- Danny Yen Sin Wong (Malasia)

Esperamos que sea del agrado de todos/as.

Sociedad Fotográfica de Zarautz

DANNY YEN SIN WONG

Batzuetan ez da erraza izango leku eszeniko batetik argazki onak ateratzea, baina benetako erronka izango litzateke hondakin-leku batetik argazki bikainak sortzea. Bada, horixe egin du Danny Yen Sin Wong Malaysiako argazkilariak, era magikoan.

Orain arte, egile onenaren sariak jaso izan ditu mundu osoko argazkilaritza lehiaketetan (guztira, nazioarteko 600 sari eta argazkilaritzako aipamen ugari eman dizkiote). Vietnamentan hartutako argazkiekin ezaguna egin zen, Sienako Argazkilaritzako Nazioarteko Lehiaketako irabazleetako bat izan baitzen. Gauza bera gertatu zen Gipuzkoako Nazioarteko Sariketan. Bertako azken bi ediziotan Gipuzkoa Saria lortu du. Erretratuen kategorian ere irabazlea izan da Balkan Photography Award 2018an eta Nikonians Photography Awards 2017an. Argazkilaritzan erakutsi duen talentuaren ondorioz, hainbat aipamen jaso izan ditu: Master PSA, Galaxy 1 Photo Travel Division-en, Galaxy 1 Projected Image Monochrome-en, 5 Star Photojournalism Division-en eta 5 Star Nature Division-en.

Mundu osoan erakutsi dira bere lanak, eta epaile edo hizlari bezala ere gonbidatu izan dute bere herrialdeko eta beste herrialde batzuetako argazkilaritza elkarteetan.

Askotan, Dannyk nazioarteko argazkilaritza-bidaiak antolatzen ditu, eta argazkilariak leku exotikoak ezagutzera eramaten ditu; adibidez, Kenya, Tanzania, Etiopia, Vietnam, Txina, Nepal, Kanbodia, Malaysia eta mundu zabaleko beste asko.

Danny Yen Sin Wong-ek argazkilaritza maite du, eta horregatik ez dio inoiz utzi mundua esploratzeari.

Erakusketa honetan azaltzen diren argazkiak Gipuzkoako Argazkilaritza Elkarteak lagatakoak dira.

Tomar buenas fotografías de un lugar escénico a veces no será fácil, pero crear fotografías excelentes desde un sitio de desechos definitivamente sería un desafío. Pues Danny Yen Sin Wong, fotógrafo de Malasia, lo ha hecho de forma mágica.

Hasta la fecha, ha obtenido el premio al mejor autor en numerosos concursos fotográficos a lo largo de todo el mundo, habiendo obtenido más de 600 premios internacionales y concedidas numerosas distinciones fotográficas. Las fotografías tomadas en Vietnam lo pusieron en el escenario del Concurso Internacional de Fotografía de Siena como uno de sus ganadores. Lo mismo ocurrió en el Trofeo Gipuzkoa Internacional donde ha ganado el Trofeo Gipuzkoa en las dos últimas ediciones. También ha resultado ganador en la categoría de retrato en el Balkan Photography Award 2018, así como en los Nikonians Photography Awards 2017. Su gran talento fotográfico le ha hecho tener unas cuantas distinciones fotográficas como Master PSA, Galaxy 1 en Photo Travel Division, Galaxy 1 en Projected Image Monochrome, 5 Star en Photojournalism Division y 5 Star en Nature Division.

Muchos de sus trabajos han sido exhibidos por todo el mundo y ha sido invitado como jurado o como conferenciante en numerosos clubes fotográficos dentro de su país y en otros países.

Danny, con frecuencia, organiza viajes fotográficos internacionales y lleva a fotógrafos a explorar lugares exóticos, como Kenia, Tanzania, Etiopía, Vietnam, China, Nepal, Camboya, Malasia y muchos más a lo largo de todo el mundo.

Su gran pasión por la fotografía siempre le ha hecho que nunca deje de explorar el mundo.

Las fotografías de Danny Yen Sin Wong que aparecen en esta exposición han sido cedidas por la Sociedad Fotográfica de Gipuzkoa.



GEMA ARRUGAETA

Natura, kultura, landa-ingurunea eta bidaiak maite ditu, eta horregatik espezializatu da gai horietan.

Esperientzia zabala du munduko hainbat paisaia, herrialde eta kulturatan, eta argazkilari-tza-lan ugari egin izan ditu horietan.

Naturaren eta landa-ingurunearen irudiak biltzen dituzten hainbat libururen egilea da; beste batzuekin batera parte hartu du, baita, erakunde publikoen eta pribatuen liburu eta argitalpenetan, eta kolaboratzailea da bertako eta nazioarteko komunikabideetan. Argazki-erakusketak ere egiten ditu bere jardun profesionalean, Euskal Herrian eta nazioartean (hala nola, Geneva, Paris, Brusela, Madril, Tunes, eta abar).

Alemaniko eta Espainiako telebistetan ere aritu da argazkilari kolaboratzaile gisa, eta formatu askotariko audiobisualetan eta dokumentaletan lan egin du.

TXIMISTA<K izena du argazki-bilduma honek, eta naturaren jolasa du ardatz. Txilinbueltan uztartzen ditu naturak sortzen dituen jolasen, jolas amaigabeen, argi, kolore eta testurak.

Nafarroko Bortzirietako Tximista errekatik itsasorantz egindako irudikapen/hausnarketa ibilbidea ikusgai dugu argazki-bilduma honetan.

Su pasión por la naturaleza, el medio rural y los viajes le ha llevado a especializarse en estas temáticas.


Posee una dilatada experiencia en multitud de paisajes, países y culturas del mundo, donde ha realizado numerosos trabajos fotográficos.

Autora de diversos libros de imagen de naturaleza y medio rural; también es copartícipe en libros y publicaciones de instituciones públicas y privadas, así como colaboradora de medios nacionales e internacionales. La realización de exposiciones, en diferentes ámbitos, también forma parte de su habitual quehacer profesional.

TXIMISTA<K es el título de esta colección de fotografías. Un recorrido visual por el río Tximista, en el valle navarro de Bortzirriak, descendiendo a tropicones hasta el mar.

Imágenes basadas en la observación de la naturaleza, siempre diferente, infinita, en sus juegos de luces, colores y texturas.

Jugar con la fotografía, jugando en la naturaleza.



ANTONIO MANZANO

Antonio Manzano Valladoliden jaio zen, 1949an, argazkilari-familia batean.

Kontatzen duenez, bera ere txiki-txikitatik txunditu zuen argiaren magiak; hipnotizatu egiten zuten errebelatzailearen kubetatik pixkanaka ateratzen ziren eta berari begiratzen zioten aurpegiek. Prozesu "misteriotsu" hark pasio bat sortu zuen; pasio horrek bizirik dirau eta, gainera, egunetik egunera indartsuagoa egin da.

Indar horrek oraindik ere bere irudiak bultzatzen ditu, eta horren azken adibidea da Manzanoren erakusketa hau. Oraingoan ere –bere ibilbide osoan bezala– izugarritzko empatia erakusten du; alegia, nolako gaitasuna duen esplotatuen, marjinazioa, miseria jasaten dutenen azalean jartzeko. Azken finean, pobrezia jasaten dutenen lekuan jartzeko.

Horregatik, Antonio Manzanoren kamera xaman baten erreminta bezalakoa da: bere gaixoaren aurrean astintzen duena, haren gaitzak, haren mina uxatzen saiatzeko. Exorzismo etsia eta nekagarria. Horrelakoa da argazkilari honen begirada.

"Kaleetan eta mendietan oihuak, aginduak, miseria eta aldarrikapenak gelditzen dira".

(Antonio Manzanoren irudiei buruz Miguel Adover kazetariak egindako aipamena)

Gaizka Villate

Antonio Manzano nació en Valladolid en 1949 en el seno de una familia de fotógrafos.

Según cuenta, él mismo se rindió a la magia de la luz desde que era un niño, hipnotizado por los rostros que surgían lentamente y le miraban desde la cubeta del revelador. Aquel "misterioso" proceso hizo nacer entonces una pasión que continúa e incluso se ha ido haciendo más fuerte cada día.

Una fortaleza que sigue impulsando sus imágenes y cuyo último ejemplo es esta muestra en la que Manzano sigue ostentando –como entoda su trayectoria– una inmensa empatía: su capacidad para ponerse en la piel de los explotados, de los que padecen la marginación, la miseria. De los que sufren, en suma, la pobreza.

Por eso la cámara de Antonio Manzano es como la herramienta de un chamán, agitada en torno a su paciente intentando expulsar sus males, su dolor. Un exorcismo desesperado y agotador. Así es la mirada de este gran fotógrafo.

"En las calles y en los campos quedan gritos, órdenes, miseria y reivindicación"

(Reseña del periodista Miguel Adover sobre imágenes de Antonio Manzano)

Gaizka Villate



ANTTON LÓPEZ GARÍN

Argazkilaritza da, baina ez argazkilaritza bakarrik.

Bere prozedura ez da batere berria, horixe izan baitzen argazkilaritzaren hasiera; eta beranduago ere hainbat argazkilarik erabili zuten, besteak beste, Man Ray-k eta Moholy Nagy-k. Gaur egun "fotograma" izanarekin ezagutzen da.

Sistema analogikoaren euskarri klasikoak erabiltzen ditut nire argazkietan (papera, errebelatzailea eta finkatzailea), eta alde batera uzten ditut argazki-kamerak eta negatiboak. Papera eta argia dira irudi garbienak sortzeko elementuak, obran beste oztoporik gabe.

Ez da argazkilaritza konbentzionala. Hurbiltzen denak ezin du irudien zehaztasuna bilatu; iradokizunak bakarrik dira, ikuslea mundu ez-erreal batean sartzeko eta irudimenean murgiltzeko.

Hasieratik bukaeraraino gustatzen zait obran esku hartzea. Euskarria, askotan, aitzakia da obra hondatzeko edo laztantzeko. Obrarekin harremanetan egon beharra daukat, horrek hainbat tratamendu iradokitzen dizkidalako.

Naturak nire eskura jartzen duen edozein material ipin dezaket paperaren azaleraren gainean (hostoak, goroldioa, adarrak edo lurra), eta papera bera ere urratu, zimurtu edo puskatu dezaket. Paper zuri-beltzaren aberastasun kromatikoaz gain koloreak erabiltzen ditut (inprentako tintak, olioak edo errotuladoreak).

Argazkilaritzaren bestelako kontzeptu honetan, begi-inpaktua da alderik sortzaileena.

Es fotografía, pero no es solo fotografía.

Con un procedimiento nada nuevo, ya que fue el principio de la fotografía y que fue más tarde utilizado por fotógrafos como Man Ray y Moholy Nagy, entre otros y que hoy se conoce con el nombre de fotogramas.


En mis fotos utilizo los soportes clásicos del sistema analógico (papel, revelador y fijador) sin recurrir a la cámara fotográfica ni a los negativos. El papel y la luz son los elementos para la creación de imágenes más puras, sin que nada interfiera en la obra.

No es una fotografía convencional, el que se acerque a ellas no puede buscar la fidelidad de las imágenes, solo sugerencias para que el espectador entre en un mundo no real y se deje envolver por la imaginación.

Me gusta intervenir en la obra de principio a fin, el soporte es una excusa para muchas veces maltratarla o acariciarla, necesito estar en contacto ya que eso me sugiere distintos tratamientos.

Sobre la superficie del papel puedo colocar todo tipo de materiales que la naturaleza pone a mi alcance como: hojas, musgos, ramas o tierras, además de rasparla, arrugarla o romperla. La riqueza cromática del papel en blanco y negro me lleva a utilizar colores como tintas de imprenta, óleo o rotuladores.

Es otro concepto fotográfico donde el impacto visual es la parte más creativa.





SANZ ENEA

2018ko azaroak 9 - 2018ko abenduak 9
9 de noviembre de 2018 - 9 de diciembre de 2018

ORDUTEGIA / HORARIO
Egunero / Todos los días: 18:00 - 20:00



ZARAUZKO UDALA

KULTURA DEPARTAMENTUA